ZITAZIO-ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoari buruzkoa. 23500

# Xedapen Orokorrak

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 5685

EBAZPENA, 2007ko irailaren 24koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegian egindako aldaketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.

EHUko Gipuzkoako Campuseko Batzarreko Arautegiaren 27. artikuluan (EHAA 234 zk., 2005eko abenduaren 12koa) ezarritakoari jarraituz, EHUko Gipuzkoako Campuseko Batzarrak, 2007ko maiatzaren 10eko bileran, Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegiko 6.3.d) artikulua aldatzea onartu zuen.

Lege aholkularitzak aldaketaren aldeko txostena egin zuen 2007ko maiatzaren 30ean.

Arautegietan aldaketak egiteko eskumena UPV/EHUren Gobernu Kontseiluarena da, UPV/EHUko Estatutuetan, 266. artikuluan, zehaztutakoari jarraituz.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, EHUko Gobernu Kontseiluak, 2007ko ekainaren 21eko bileran, erabaki zuen Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegia aldatzea.

Azkenik, EHUko Estatuetako 258.1 d) artikuluak dio idazkari nagusiak bermatu behar duela EHUko erabakiak argitaratzea, eta gauza bera agintzen du Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak ere (otsailaren 25eko 3/2004 Legea).

Horrela, bada, honakoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegian egindako aldaketa, hain zuzen ere honakoa:

1.– Arautegiko 6.3. d artikulua aldatzea. Aurrerantzean honakoa izango da idazkera:

d) Campuseko sailetako eta sail-ataletako zuzendarien sei ordezkari.

CÉDULA DE CITACIÓN sobre Laudo arbitral de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 23500

# Disposiciones Generales

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### 5685

RESOLUCIÓN de 24 de septiembre de 2007, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la modificación del Reglamento de Junta de Campus de Gipuzkoa.

En virtud de lo establecido en el artículo 27 del Reglamento de la Junta de Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU (BOPV n.º 234 de 12 de diciembre de 2005), la Junta de Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU aprobó en su sesión de 10 de mayo de 2007 la modificación del artículo 6.3.d) del citado Reglamento de Junta de Campus de Gipuzkoa.

La reforma propuesta fue informada favorablemente por la asesoría jurídica con fecha 30 de mayo de 2007.

Esta modificación reglamentaria es competencia del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en virtud de lo dispuesto por el artículo 266 de los Estatutos de la UPV/EHU.

A la vista de las anteriores consideraciones, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 21 de junio de 2007, acordó modificar el Reglamento de Junta de Campus de Gipuzkoa.

Por último, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, y así también se establece en la Ley 4/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero.–*** Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la modificación del Reglamento de Junta de Campus de Gipuzkoa en los siguientes términos:

1.– Modificar la redacción del artículo 6.3.d del Reglamento que quedará como sigue:

d) Seis representantes de las Directoras o Directores de Departamento y de las Secciones Departamentales pertenecientes al Campus.

***Bigarrena.–*** Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean aldaketa.

***Hirugarrena.–*** Ebazpen hau irmoa da eta, beraz, administrazio bidea agortzen du. Erabakiaren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke erabakia hartu duen organoari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean.

Leioa, 2007ko irailaren 24a.

Idazkari nagusia,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

***Segundo.–*** Esta modificación entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Tercero.–*** Esta Resolución por ser firme, pone fin a la vía administrativa y contra la misma sólo se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 24 de septiembre de 2007.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### AIARAKO UDALA

### 5686

IRAGARKIA, zerbitzu anitzetako behargin lanposturako deialdiari buruzkoa.

Udalbatzak, 2007ko apirilaren 19an egindako ohiko bilkuran, aho batez ondorengo hau

ERABAKI DU:

***Lehenengoa.–*** Zerbitzu anitzetarako behargin lanpostua betetzeko hautaprobak deitzea.

***Bigarrena.–*** Aiarako Udaleko langile plantillan hutsik dagoen zerbitzu anitzetarako behargin lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarri arauak onartzea.

***Hirugarrena.–*** Erabaki hau behin betikoa dela eta administrazio bidea amaitzen duela adieraztea. Interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar dezakete haren aurka, nahi izanez gero, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, ebazpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabeteko epean.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### AYUNTAMIENTO DE AIARA-AYALA

### 5686

ANUNCIO relativo a la convocatoria de plaza de Operario de Servicios Múltiples.

En Sesión Ordinaria celebrada por este Ayuntamiento el 19-04-2007, la Corporación, por unanimidad, adoptó el siguiente

ACUERDO:

***Primero.–*** Convocar prueba selectiva para cubrir el puesto de Operario de Servicios Múltiples.

***Segundo.–*** Aprobar las bases que han de regir la convocatoria para la provisión, mediante sistema de concurso-oposición de una plaza de Operario de Servicios Múltiples vacante en la plantilla de personal del Ayuntamiento de Ayala-Aiara.

***Tercero.–*** Significar que el presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa pudiendo los interesados interponer contra el mismo recurso de reposición potestativo o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.